



**Ander Zubizarreta**  
Software ingeniaria  
Irudia: Pixabay / PMK


# Ingeniaritza soziala

*Hacker*-ez dihardugunean –hitz egokia *cracker* litzateke–, burura datorkigun irudia da izugarritzko abiaduran teklatura astinduz pantailaren aurrean eserita dagoen pertsonarena, sistema arrotz batean sartzeko pasahitza eskuratu eta ondoren behar dituen datuak lapurtu nahian. Badira metodo ezberdinak erabiliz pasahitzak asmatu edo konputagailu bat atzitzeko tresnak, eta garrantzitsua da pasahitz seguruak izan eta gure sistema seguru mantentzea.

**Katea** beti katebegi ahulenetik hausten omen da, ordea. Eta kasu askotan bezala, informatikaren eta Interneten mundu honetan ere teklaturaren eta aulkiaeren arteko interfazea izan ohi da sarritan katebegi ahulena, gizakia bera.

**Kevin** Mitnick *hacker* famatuak esan ohi du ez duela merezi besteen ordenagailuetan sartzeko sistema sofistikuak garatzen denbora galtzeak, askoz eraginkorragoa baita biktimari zuzenean behar duguna eskatzea.

**Horretan** datza, bada, ingeniari-tza soziala, biktima bera konbentzitzean, telefonoz zein Internetez, behar dugun hori bere borondatez eman diezagan. Noski, ez da norbaitengana hurbildu eta “mesedez, emazkidazu zure bankuko erabiltzaile izena eta pasahitza” esatea bezain erraza, bestela ez litzateke ingeniari-tza deituko.



**Erabiltzen** diren teknikak anitzak dira. *Phising*-a da ezagunenetakoa, edo, behintzat, haren arriskuak gehien ohartarazi gaituztenetakoa. Beste baten identitatea ordezkatzean datza hori, gehienetan banketxearena, biktima engainatzeko. Bestetik, gutako gehienok ere jasoko genuen noizbait ahaiderik ez duen printze nigeriarrak utzitako ondarea eskuratzeko gonbita.

**Landuagoak** dira teknika batzuk besteak baino, eta, sareak

eboluzionatzearekin batera, hauek ere aldatuaz eta berriak sortuaz doaz. Adibidez, sare sozialetako profil faltsuak biktimarekin konfiantzazko erlazio bat sortzeko, ondoren behar dena ateratzeko. Edota, krisi garaia aprobetxatuz, iruzurrezko lan-eskaintzak argitaratzearena, desesperatuta dagoen norbanako horretaz aprobetxatzeko.

**Gainerakoak** baino argiagoak garen uste horretatik, pentsa genezake ea nor den horrelakoetan erortzeko bezain inozoa. Baina etxeko atean hamar giltzarrapo izanagatik, tinbrea jo duenak postaria denaz konbentzitu bagintu, ez al genioke, ba, atea zabalduko? ■■■

**ERAGINKORRAGO DA  
BIKTIMARI ZUZENEAN  
BEHAR DUGUNA ESKATzea**